

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Pirinio Atlantikoeak indarrak batu dituzte haurren obesitatea prebenitzeko

ANETO programa jada ezarri da Foru Komunitateko 20 ikastetxetan

Astelehena, 2018.eko azaroak 12

Gaur aurkeztu dute Iruñean [ANETO programa](#), Frantzia eta Nafarroa arteko herrialde mugakideetako 6-7 urte arteko haurren obesitatea prebenitzeari buruzkoa. Europar Batasunaren POCTEFA programan kokatua eta FEDER funtsen bidez batera finantzatua, Nafarroan 20 ikastetxetan ezartzen ari da.



Nafarroako eta Pirinio Atlantikoeetako ordezkariak ANETO programan esku hartzen dute.

Aurkezpenean honako hauek hartu dute parte: Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilari Ana Herrerek; Garapen Iraunkorra - Pirinio Atlantikoko Kirolen Sareko kontseilariak, Sandrine Lafarguek; Frantziako Hezkuntza Nazionaleko Zerbitzuetako zuzendari akademiko ondokoak, Etienne Morel Daasen-ek; eta Kirolaren Azterketa, Ikerketa eta Medikuntza Zentroko (CEIMD) zuzendari Esteban Gorostiagak.

ANETO programa proiektu integrala da, eta haurrak, haien familiak, hezkuntza-ingurunea nahiz instituzio eta erakunde publiko eta pribatu ezberdinak inplikatzeko, gehiegizko pisuaren eta obesitatearen kopuruak murrizte aldera proiektuak irauten duen bitartean. Proiektua aurten hasi eta 2020ko abenduan amaituko da. Hala ere, asmoa ez da ikastetxeetan haurren obesitatea prebenitzeko esku-hartze zehatz bat egitea, baizik eta etorkizun hurbilean tresna pedagogiko eta gainbegiratzeko tresna bilakatzea, eskolako adinean dauden haurren gehiegizko pisua eta obesitatea nahiz baldintza fisikoa kontrolatzeko.

Beraz, ANETO proiektuaren helburuen artean, honako hauek aurkitzen dira:

- 6 urteko 700 haurren gehiegizko pisuaren eta obesitatearen prebentzioa eta tratamendua, mugaz haraindiko hezkuntza-programa integralaren bitartez. Programaren helburua da elikaduraren inguruko ohitura



Ezkerretik eskuinera, Gorostiaga, Herrera, Lafargue eta Daasen, aurkezpenean zehar.

osasungarriak hartzea eta jarduera fisikoa lantzea ikastetxean, komunitatean eta familian.

- Gizartea sentsibilizatzea bizitzako lehen urteetatik aurrera elikadura egokia izateak eta ariketa fisikoa egiteak duten garrantziaz.

- Jarduera fisikoa gehitzeak eta elikadura hobetzeak gorputzean eta gaitasun fisikoan dituzten efektuak aztertzea.

- Azkenik, mugaz haraindiko eta Europako hezkuntza-sarearen oinarriak sortzea eskolen arteko elkarreragitea errazteko eta jardunbide egokiak trukatzeko.

POCTEFA programaren helburua da Espainia-Frantzia-Andorra mugako zonako integrazio ekonomiko eta soziala indartzea. Laguntzari esker, mugaz bestaldeko jarduera ekonomikoak, sozialak eta ingurumen-arlokoak garatu nahi dira, lurraldearen garapen iraunkorrerako estrategiak batera landuaz.

Parte hartzen duten ikastetxeak

ANETO proiektua Lehen Hezkuntzan garatzen da, Espainia eta Frantzia artean mugaren bi aldeetan kokatutako ikastetxeetan.

Asmoa da bi ikasturtetan (2018-19 eta 2019-20) lan egitea mugaren alde banatan 700 bat ikaslerekin; hots, guztira 1.400 bat haur. Nafarroan, honako ikastetxe hauetan jorratzen ari da:

- Landa-gunea: Remontival (Lizarra), Ricardo Baroja (Bera), S. Miguel (Doneztebe), Elizondo, S. Donato (Etxarri Aranatz), Atakondoa (Irurtzun), Gotzaina (Irurita), Irain (Lesaka), Baztan ik., Labiaga ik. (Bera), Andra Mari ik. (Etxarri Aranatz) eta Tantirumairu ik. (Lesaka).

- Iruña eta eskualdea: Hegoalde ik., Iturrama, San Jorge, Buztintxuri, Sanduzelai, Atargi, Lorenzo Goicoa eta Patxi Larrainzar.

Informazio gehiago: info@aneto.eu